

# txintxarri

## Eguberriei forma ematen

Ttakun Kultur Elkarteak zenbait jarduera prestatu ditu Gabonetarako; talo ikastaro bik ireki dute egitaraua / 9

TXINTXARRI

## VIP izan dira guztiak

Aurtengo jaialdia egin eta hamabost egunera, balorazio "oso ona" egin du Jalgunek / 8

**Buenetxea tabernak eta Araeta jatetxeak irabazi dituzte Aterpearen VIII. Pintxo Bideko sariak / 3**

**San Silvestre lasterketako izen ematea martxan da. Aurtengo berrikuntza: goizez jokatu da / 10**

*ahatekinak  
ehizak eta hegaztiak  
bakailao gezatua  
onddoak  
marinatuak  
olagarroa*



**aldika** productos selectos

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 70 89  
aldika@aldika.com • www.aldika.com

**Aurreratu zure eskariak telefonoz edo emailaz**

# Fortu Hernandez herritarra mendeurrenera iritsi da

Fortunata Hernandez Arroyok ehun urte bete ditu. Bere senideez inguratuta ospatu du eguna. 1965etik bizi da Lasarte-Orian eta besteak beste, herrian eskola duina egoteko borrokatu zela ekarri du gogora udal ordezkariak egin dioten bisitan

## Txintxarri

Fortunata Fortu Hernandez Arroyok 100 urte bete zituen atzo, hilak 15. Egun berezi horretan, senide eta lagun guztien zorion agur mezuak jaso zituen, baita Lasarte-Oriako udal ordezkariena ere. Agustin Valdivia alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedoren bisita jaso zuen bere etxean. Sasoiko dago eta gaztetako borrokalari eta aldarrikatzaile grina mantentzen duela ageri utzi du berarekin hitz egitean.

## Pertsona bidaiaria

1922. urtean Valladolideko Zaratan herrian jaioa izan arren, lasarteoriatar petoa dugu Fortu. 19 urterekin bere jaioterria utzi eta zerbitzari lanetan izan zen Zaragoza, Errioxa eta Donostian. Pasaian dantzaldi batean ezagutu zuen bere senarra. Antiguoko elizan ezkondu eta auzo horretan bizi izan ziren. Bertan jaio ziren bere hiru alabak. "Senarrak Columbia disketxean eta Jabon Lagarto fabrikari egin zuen lan. Gero Lasartera etorri ginenean Oasa fabrikari lana aurkitu zuen", adierazi du.

1965ean iritsi ziren orduan Hernani, Urnieta, Donosti eta Usurbilgo auzoa zen Lasarte-



Fortunata Hernandez Arroyo, bere hiru seme-alaba eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

Oriara. 1966an bere laugarren semea izan zuen.

Lasarten eskola publiko duina egoteko borrokatu zuen beste emakume talde batekin batera. "Hernaniko Udalean Lasarten eskola duina egotearen aldeko aldarrikapena egin genuen urtetan; Madrilerara ere joan zen talde bat hezkuntzako arloarekin hitz egitera. Gure nahia lortu genuen", gogoratu du.

## Familia

Pablo Mutiozabal kalean bizi izan zen urte luzez; orain, Uzturre

plazan du etxea Fortuk. Ez dago bakarrik. "Semea da nirekin bizi dena", azpimarratu du.

Lau seme-alabez gain, lau biloba -neska bat eta hiru mutil- eta bi birbiloba (biak mutilak) ditu, eta guztiek batera ospatu zuten arratsaldean bere mendeurrena. Igandean (hilak 18, berriaz, Zaragozako eta Valentziako senideekin bat egingo dute, bazkari batean. Eta urteak ospatzen jarraitzeko asmoa duela adierazi du: "Jainkoak beste mundura eramaten nauenera arte behintzat, borrokan jarraituko dut".



Argazkilaria eta udal ordezkariak, sarien banaketa ekitaldian. L-O UDALA

## Sariak jaso dituzte 2023ko egutegia ilustratu dutenek

Partaideen lana goraiatu du udalak; "Lasarte-Oria zure objektiboan" lehiaketa egiten jarraitzeko asmoa iragarri du

## Txintxarri

Hamabi argazki, 365 egun irudizatzeko. *Lasarte-Oria zure objektiboan* argazki lehiaketa aurrera eraman du udalak, herritarren parte hartzea sustatu eta haiek egindako irudiekin 2023ko egutegia ilustratzeko. Agustin Valdivia alkatearen eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandezek eman dizkiete sariak egileei: Aterpea elkarteko bazkide diren komertzioetan erabiltzeko erosketa txartelak, 100 eurokoak ia denak. Azaroko argazkiaren egileak, Gorka Lizasok, 150 euroko bonua jaso du, egutegiaren azalera eramango dutelako bere lana.

Udal ordezkari horiek zehaztu dute hilaren 19ko astean hasiko direla egutegiak banatzen: Sei Express enpresa arduratuko da horretaz, 1.500 euroren truke. Egutegia diseinatu eta inprimatu duena, berriaz, Graficas Ganboa izan da; 9.994 euro jaso ditu.

## Irabazleak

- **Urtarrila:** Jose Manuel Arreal.
- **Otsaila:** Almudena Iglesias.
- **Martxoa:** Iban Urkizu.
- **Apirila:** Maria Rosa Marcos.
- **Maiatza:** Carolina Prieto.
- **Ekaina:** M.R. Marcos.
- **Uztaila:** Maitena Tellaetxe.
- **Abuztua:** Evgenii Modin.
- **Iraila:** C. Prieto.
- **Urria:** Jose Angel Hidalgo.
- **Azaroa:** Gorka Lizaso.
- **Abendua:** Oscar Perez.

Valdiviak eta Fernandezek partaideen lana goraiatu dute, eta iragarri udalak asmoa duela lehiaketa antolatzen jarraitzeko.

## Aurtengo Gabonetako argiak, "jasangarriagoak"

Udalak iragarri du "%65 energia gutxiago" gastatuko duela aurtun; egun gehienetan itzali egingo ditu argiak, 23:00etan

## Txintxarri

Ohi baino bost egun geroago piztu zituen udalak Eguberrietako argiak, hilaren 9an. Ingurugiroan ahalik eta gutxien eragin eta energia aurrezte aldera, Agustin Valdivia alkateak jakinarazi du

gau gehienetan itzali egingo dituztela: "Astelehenetik ostegunera, 23:00etan, eta ostiraletan nahiz larunbatetan, 00:00etan". Hilaren 24a zein 31 eta urtarrilaren 5a izango dira salbuespenak. Zehaztu du LED

motako argiteria erabili dutela aurtun ere. "Gutxiago kontsumitzen du".

Zerbitzuetako batzordeburu David Mateosen arabera, neurri horiek hartzeak "%65 energia gutxiago kontsumitzea" ekarriko du, argiak 325 ordu gutxiagoz egongo baitira piztuta. Adierazi du Maikolux enpresa arduratu dela herriko kaleak girotzeaz aurtun ere. "Datorren urtean berriro atera behar dugu lizitazioa argiena, egitasmoari buelta bat emateko aprobetxatuko dugu".



Urtarrilaren 6ra arte egongo dira piztuta Eguberrietako argiak. TXINTXARRI



Aterpea elkarteko kide, udal ordezkari eta ostalari, ekitaldi amaieran talde argazki bat egin zuten denek batera. TXINTXARRI

# Buenetxea eta Araeta saritu dituzte aurten

Aterpea elkarteak antolatutako VIII. Pintxo Bidearen sariak banatu dituzte. Antolatzaileek jakinarazi dute hiru egunetan 1.050 bat jaki saldu dituztela, eta horrek 6.000 euroko eragin ekonomikoa izan duela Lasarte-Orian. Horrelako ekimenen beharra aldarrikatu dute

## Txintxarri

Aterpea elkartearen VIII. Pintxo Bidea "arrakastatsua" izan dela nabarmendu dute antolatzaileek. Hiru urteko etenaldi behartuaren ostean, ostalariak nahiz bezeroek gogoz hartu dute egitasmoa, eta islatu da salmentetan. Taberna eta jatetxe parte hartzaileek prestatutako jaki goxoak gustura kontsumitu dituzte herritarrek: hilaren 2tik 4ra 1.050 bat pintxo saldu zituzten, eta horrek 6.000 euro inguruko eragin ekonomikoa izan du Lasarte-Orian, Aterpeako lehendakariorde Ana Laureanok nabarmendu modura.

Udaletxean egin zuten sariak banatzeko ekitaldia, hilaren 14an. Bertan izan ziren Aterpeako

zenbait kide, udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez eta aurtengo aldiaren parte hartu duten taberna eta jatetxeetako ostalariak.

## Buenetxea eta Araeta, saridun

Sari profesionala eman zuten aurrean. Lavie jatetxeko sukaldari Javi Mendo izan da epailea, eta haren iritziz Buenetxea tabernak prestatu du pintxo onena: pil-pil erara egindako bakailaoa, pesto ohe baten gainean. Establezimendu horren jabeek ezustean hartu zuten albistea, eta pozarren jaso zuten garaikurra.

Horren ostean, sari herrikoiaren txanda izan zen. Pintxo bidea egin bitartean, bezeroek aukera izan

zuten eskuorri batean puntuak emateko. Iritzi horiek guztiak jaso eta aztertu ostean, Aterpeako lagunek iragarri zuten Araeta jatetxeak lortu zituela gehien. Buenetxeak bezalatsu, hunkituta jaso zuten aitortza, negar malkoren bat isurtzeraino.

Ostalariak bakarrik ez, bezeroek ere jaso zituzten sari pare bat, kontsumitzaile guztien arteko zozketan parte hartu izanagatik: Jose Ignacio Lopez eta Juan Mari Agirretxe herritarrek 250 euroko erosketa txartel bana jaso zuten. Ekitaldia biribiltzeko, udaletxera bertaratutako guztiek talde argazki bat egin zuten, eta pintxo bidea bezalako egitasmoen garrantzia aldarrikatu.



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

## Bizitzaren amaiera

Bizitza amaitzen dela onartzea zaila egiten zaigu, itzurtzen zein ukatzen dugun errealitate bat izango balitz bezala. Gure gizartean heriotza tabu bihurtu da. Jakin badakigu momentua iritsiko dela, ez garela hilezkorrak, baina izango bagina bezala bizi gara. Denbora galtzen dugu, gauza garrantzitsuak geroratzen ditugu, gure osasuna, adina, zahartzarora edo gure indarrak zaindu gabe proiektuak egiten ditugu, eta, askotan, ez gaude guztiz hemen, jakinda daukagun denbora mugatua dela.

Paradoxa dirudien arren, orain dela hilabete gutxira arte nik ez nuen heriotza gertutik bizi izan. Bai, heriotza ere bizi daiteke. Lehenengoan, etxera bueltan hegazkinean sartzerako nindoala, amaren deia: "Amona sedatuko dugu. Ea iristen zaren". Eta ez, ez nintzen heldu amonari agur esatera. Bigarrenean, ostiral goiza zen. Erabakia hartzeko unea iritsi zen. Aita eta osaba-izebak ospitalera igo ziren bitartean, nik nire errutinarekin jarraitu nuen, ohi bezala. Baina bat-batean espero nuen deia jaso nuen. "Aitona sedatuko dugu. Agur esan nahi badiozu, igo".

Egun horretan ohartu nintzen zein aberatsa zen nire aitona. Lau seme-alaba eta lau biloba "ditu" edo "zituen" nire aitona. Zergatik pertsona batek uzten gaituenean orainean hitz egiteari utzi eta lehenaldian hitz egiten hasten gara? Inguru-minguru ibili gabe, egun horretan bizitakoarekin jarraituko dut.

Beti sentitu dut toki hotz gisa ospitalea, baina aitona goxotasun osoz agurtzeak hoztasun hori ahaztuarazi zidan. Aitonari agur esateko une gogorraren aurrean, ni zoriontsu eta esker onez sentitu nintzen. Lehen esan dudana bezala, aitona lau seme-alaba eta lau biloba ditu, eta sedazioak iraun zuen sei orduetan ez zen inor mugitu aitona ondotik. Sei ordu heriotza ondoan genuela. Sei ordu familia guztia aitona inguruan egon zela. Sei ordu bizitzaren azkeneko uneaz gozatzeko aukera izan genuela. Inoiz ahaztuko ez ditudan sei ordu.

Bere azken arnasera arte, bere azken taupadara arte, bere bizitzaren bukaerara arte, isiltasunean, bere eskubiko eskutik helduta egon nintzen. Masailatik malkoak irratitzen zitzaizkidan bitartean, aitonaarekin bizitakoaz, berak emandakoaz gogoratu nintzen.

Aurtengo gabonak desberdinak izango dira, ziur. Aurten hamabi aulki jarri beharrean, 11 eserleku bakarrik egongo dira. Aurten mahaiaren inguruan zure falta sentituko dut, aitona.

bertako  
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

ARABA

945 712 822

NAFARROA

848 870 917

www.bertako.eus



Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeko kideek 'Azkenak!' fanzinea aurkeztu dute berriki, Agora tabernan. TXINTXARRI

## Presoen aldeko enkante kolektiboa egingo dute

'Azkenak!' fanzinea aurkeztu eta gero, Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak enkante kolektiboa egingo du gaur, hilak 16, Tiburtzio Artizar tabernan, 18:30ean. Horren ostean, Eñaut Zubizarreta 'Trigger' musikariak kontzertua emango du, 21:00ak aldera

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak hilabete honetarako iragarritako bigarren jardura aurrera eramango du gaur, hilak 16, Tiburtzio Artizar tabernan, 18:30ean. Enkante kolektibo bat egingo du. Salgai jarriko dituen produktuen artean egongo dira, besteak beste, aurkeztu berri duen *Azkenak!* fanzinerako herriko zenbait sortzailek egindako irudiak, laminatan. Horiez gain, zenbait pertsonak "eskuzabalki" emandako gauza gehiago jarriko dituzte, adibidez, Lannemezan-en (Frantzia) preso dagoen Iñaki Esparzak eskuz egindako gitarra. Antolatzaileek zehaztu dute "taldean" egin beharko dituztela

eskaintzak partaideek, eta aurkezleak Bea Egizabal zein Intza Alkain izango direla. Enkantea amaitu eta gero, 21:00ak aldera, kontzertu bat emango du Eñaut Zubizarreta *Trigger* musikariak, tabernan bertan.

### Lehena, azkena izan dadin

Presoen aldeko batzordeko kideek Agora tabernan aurkeztu zuten *Azkenak!* fanzinea, hilaren 7an. Azken Ostirala dinamikako argitaratu dituzte, herriko zenbait sortzailek egindako irudiz jantzita. Hitzaurrean nabarmendu dutenez, "azkena izateko bokazioz jaioa" izan da lehen argitalpen hori.

## Badator XII. Errezitaldia

*Bazterturiko ahotsen mosaikoa osatzen* lelopean, Harresi Guztien Gaietik egitasmoak iragarri du XII. Errezitaldia egingo duela urtarrilaren 8an, Oriako kaperan, 18:30ean. Diziplina artistiko ugari uztartuta, kartzela eta kalea lotzen dituen hariak "maitasun eta elkartasunetik" josiko dituzte beste behin. Sarrera doakoa izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

## Maialen Aristegi herritarrak Gazte Talent lehiaketa irabazi du

Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jokatu dute finala; euskarazko bakarlari onena izan da lasarteoriatarra

### Txintxarri

Maialen Aristegi kantautore lasarteoriatarra aurtengo Gazte Talent lehiaketako sarietako bat irabazi du. Egitasmo horrek lan diskografikorik edo ekoiztetxe batekin kontraturik ez duten artisten lana aitortzen du. Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jo dute sei finalistek, eta esan bezala, herritarra izan da garaileetako bat, V.E.L.O. bikotea eta Iñaki Armentiarren Udda egitasmoarekin batera. Herritarra euskarazko talde edo bakarlari onenaren kategorian gailendu da.



Maialen Aristegi, Euskararen 10. Maratoialdian. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Gazteez eta euskaraz aritu dira

Buruntzaldeko Borroka Astea egin zuen Ernai-k hilabete hasieran. Gai ugari jorratu zituzte: ebxebizitza arazoak, azpiegitura handiak...eta baita euskara ere. Xirimiri elkartearen egindako 'Benetan euskaraz bizi gaitzke?' hitzaldiak ireki zuen egitaraua, hilaren 2an. Gazte Euskaltzale Sareko kide Oier Errementeria eta Soziolinguistika Klusterreko kide Maialen Iñarra jardun ziren hizketan.



## IBON FERNÁNDEZ IRADI

CP DE SAN SEBASTIÁN / DONOSTIAKO ESPETXEA

Martutene Pasealekua, 1  
20014 - Donostia (Gipuzkoa)

## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



# "Prest eta indartsu", erronkei aurre egiteko

Lasarte-Oriako alkategai Esti Garmendia eta Gipuzkoako ahaldungai Maddalen Iriarte elkartu ditu EH Bilduk, Mirentxun. 2023ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetara aurkeztuko dira biak, eta datorrenari aurre egiteko gertu daudela azpimarratu dute

## Txintxarri

Ikusmina sortu du Garmendia eta Iriarteren arteko solasaldiak, txiki geratu baita Mirentxuko aretoa. Esertzeko aulki nahikoa ez, eta zutik jarraitu behar izan dute solasaldia zenbait herritarrek. Moderatzaile lanak Uxue Loinazek egin ditu, Lasarte-Oriako EH Bilduko zinegotzietako batek.

Alboan izan du legealdi honetan ere zinegotzi lanak egiten ari den Esti Garmendia, 2023ko hauteskundeetan koalizio abertzalearen alkategai izango dena. Adierazi du jauzi handiagoa eman zuela 2019ko maiatzean, EH Bilduren udal taldean sartzea erabaki zuenean, zerrendaburu izango zela erabakitzean baino: "Gaur egun zinegotzi ez banintz izango, ez nintzateke zuen aurrean alkategai gisa ariko; salto osoa duela hiru urte eta erdi eman nuen, orain, erdia".

Zerrendaburu izateko pausoa eman zuenetik "oso babestu eta zaindua" sentitu dela aitortu du Garmendia. "Prest eta ilusioz gainezka" dagoela azpimarratu du behin eta berriro, gure herriak behar duen "aldaketa sakon"



Esker-eskuin: Uxue Loinaz, Esti Garmendia eta Maddalen Iriarte. TXINTXARRI

horri aurre egiteko. "Indartsu gaude, talde bikaina dugu, programa prestatzen ari gara eta datorren guztiari aurre egingo diogu". Erronka nagusien artean, udaletxean eraginkorragoa izatea eta maiatzeko bozetan zerrenda bozkatuena izatea aipatu ditu.

## Gipuzkoan ere, 'Abante!'

*Abante!* leloa aukeratu du EH Bilduk datorren urteko maiatzeko hauteskundeetarako, esan bakarrik ez, aldaketa burutu egin nahi duelako, krisiaren aurrean

urratsak egin. Gipuzkoako ahaldungai izango den Maddalen Iriartek asmo hori bera adierazi du, lurralde horretan eragin eta egoera "errotik" aldatzeko nahia. Elikadura burujabetza, krisi energetikoa, mugikortasuna, zaintza, kultura, euskara... Alor ugari izendatu ditu Mirentxun. "Aldunditik bertatik bultzatu beharko ditugu batzuk, eta esparru zabalagoa hartzen duten aferetan motorra izango gara". Garmendia bezalatsu, "indarrez eta ilusioz gainezka" dago.

## Sortutako guztia jaso du

Ehun abesti baino gehiago bildu ditu Jokin Goenaga herritarrek *Nere musikak* liburuan. Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean argitaratu du. Aurkezpenen adierazi du sakelako telefono eta entzungailuekin gozatzeko lana dela, abesti bakoitzeko QR kode bat sortu baitu. Hilaren 23an kaleratuko dugun Eguberrietako zenbaki berezian irakurri ahalko duzue lasarteoriatarri eragindako elkarriketa.



TXINTXARRI

## EDUKI BABESTUA



Maite Arroyo, Maite estetika zentroko jabea, bi lankideen artean. TXINTXARRI

## Maite estetika zentrotik erretiroa hartuko du Maite Arroyok, 39 urte eta gero

39 urte igaro dira Maite estetika zentroak lehenengoz ateak zabaldu zituenetik. Bertan aritu da lanean orduz geroztik Maite Arroyo jabea, baina, orain erretiroa hartzeko unea iritsi zaio. Hilaren 31 izango da bere azken laneguna, nahiz eta negozioak aurrera jarraituko duen. Gertakari hori ardatz hartuta, TXINTXARRI-rekin batu da, negozioaren ibilbidearen errepasso labur bat egin, bezeroez agurtu eta horiengandik jasotako babesa eskertzeko.

Lantegi batean ari zen lanean Maite Arroyo, langabezia geratu eta estetika ikastea erabaki zuenean. Arreta deitzen zion profesioa zelako egin zituen aipatu ikasketak, eta horiek amaitzean zituela, ahizpak animatuta, lagun batekin jarri zuen martxan lehen negozioa. Kontatu du ordukoa ez zela gaur egungoa; oraingoaren ondoko lokal batean lurrindegia eta estetika zentroa abiatu zuten. Zortzi urte pasatxo egin zituen bertan, bazkidearekin batera eta denbora hori igarota, bere negozioari ekin zion; gaurko Maite estetika zentroari. Gogora ekarri ditu hasierako garai "ilun eta gogor" haiek: "Inguruko lantegiak ixten ari zirenean egin nuen apustu; uste dut ausarta izan zela, inondik inora burugabea. Pentsa, 39 urte eta gero honaino heldu gara".

Lan ibilbideari amaiera ematea, ordea, hein batean behartuta hartutako erabakia izan dela jakinarazi du Maite Arroyok. Negozioen fakturazioa kontrolatzeko Ogasunak martxan jarri berri duen TikeTBai sistemarekin "erretxinduta" agertu da. Ez zaio ongi iruditzen koronabirusak merkatariei eragindako kaltea eta gero sistema horrekin lan egitera behartzea. Gauzak horrela, 2023ko apirilean sartuko den indarrean sistema horren erabilera estetika zentroetan, eta hori heldu aurretik erretiroa hartzea erabaki du. Derrigortasun horregatik ez balitz, beste "pare bat urtez" jarraituko zukeela nabarmendu du. "Beste zenbait gauza ikasteko gogoia sentitzen dudan arren, teknologia berriak erabilera zaila egiten zait; horrelakoekin ez naiz ondo moldatzen", gailendu du.

Nolabaiteko "lasaitasunarekin" emango dio amaiera bere ibilbide profesionalari, izan ere, bere lankide Maria Ugidos eta Ainhoa Santiagok negozioarekin jarraituko baitute: "Hala izan ez balitz, agian erabakia bestelakoa izango zatekeen". Argitu du, ordea, urtarilean zenbait egunez itxita egongo dela zentroa; Maite Arroyok erretiroa hartu eta tramite administratiboak tarteko, ezingo baitiote etenaldirik gabeko jarraipenik eman. Dena den, lankideak telefono deiak erantzungo dituztela ziurtatu du.

Duela 39 urte hasitakoa gaurdainokoa izatea ere ahalbidetu dute bezeroek, eta, noski, horiei guztiei eskerrak emateko ere baliatu nahi izan ditu lerrok: "Oso harro, asebeteta eta zorionsu nago; eta, nola ez, oso eskertuta ere bai urte luze hauetan gure bezero izan diren guztiek; mila esker guztioi konfiantzagatik!".

# LASARTE-ORIA

## GREMIOEN GIDA



Arreta profesionalena,  
herrian bertan!

### **Elektrizitatea**

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

### **Iturgintza**

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

**BULEGOA:** Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 606 68 66 15 eta 943-36 17 52.  
**TAILERRA:** Oialume bidea 24, Astigaraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)

### **Kristaldegi eta leihoak**

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

30. urteurrena  
**ISU**

**PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK**  
Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

 **943-36 64 95**  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL 

### **Barne-Diseinua**

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

### **Igeltseritza**

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan  
azaldu nahi baduzu  
jar zaitez gurekin  
harremanetan

# eguberrietako kanpaina

Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta aparta!

Lasarte-oria 2022

Abenduaren 1etik 31ra

## ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEAK

VENTANAS ALCAR

FERRETERÍA SUKOA

PELUQUERÍA MARBELL

DECO 75 TEXTIL HOGAR

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

ZAPATERÍA ITURBE

ALBA MODA

CALZADOS LEDER

PELUQUERÍA BEA

ADATS ORRAZTEGIA

OLA ENMARCACIÓN

MABEL MODA

MERCERÍA OLMÍ

SANTANA INFORMÁTICA

PELUQUERÍA MANI'S

ORBELA EKODENDA

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

ORMAZABAL LORADENDA

HALCÓN VIAJES

BIDEO LAGUNAK

ADMON. DE FINCAS MILLA

OIHANA ESTETIKA

NAHIO ARROPA DENDA

BIZKER RÓTULOS

NOGUÉS MODA

MAYA LENTZERIA

URRUZOLA MERTZERIA

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

CLOVER COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS

MULTIÓPTICAS

IMAGINE JANTZI DENDA

CAFÉ-BAR BUENETXEA

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

ELECTRICIDAD ARREGUI

MERCERÍA MAUXA

VENTANAS ISU LEIHOAK

ÓPTICA LIZARRI

BAR ALAI

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

BERASATEGI KAFEAK

BAR ORIA-TXIKI

GIMNASIO SAITO



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA  
TRATUA ON BAT  
UN BUEN TRATO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO





Jalgune elkarteko kideak emanaldi amaieran oholtzara irten ziren ikus-entzuleak agurtu eta horiei eskerrak ematera. TXINTXARRI

# VIP pertsonaz betetako aretoa

Very Important People (VIP) –pertsona oso garrantzitsuak– direla erakutsi dute beste behin Jalgune elkarteko kideek, eta ondoan izan dituzte halakoak diren 10. Maratoialdiko zortzikoteko kideak, Semblante Rociero edo Bea Egizabal eta Cesar Marcos

## Txintxarri

Ospetsu, aberats, agintari edo dena delako arrazoirengatik VIP direnek, zenbait abantaila izan ohi dituztela azalduz hasi zuten jaialdia (hilaren 3an egin zuten) Jalgune kideetako bik; baita eurak halakoak direla esanez ere. Pertsona garrantzitsuak dira, beste modu batera ezagunak eta aurtengo jaialdian berriro erakutsi zuten zergatia. Kultur etxeko auditorioa ia bete zen, bai goiko solairua, bai behekoa; eta ordu eta erdi iraun zuen saioan txalo eta barre egiteko aukerarik ez zitzaien falta izan bertaratutakoei.

Artistak dira Jalgune kideak. Dantzan eta abesten primeran moldatzen dira, bakarrik edo begiraleekin batera. Lehen erakustaldian, Semblante Rociero koruko kideen doinuak dantzatu zituzten, pare bat sevillanetan bikotekide Semblante Andaluzeko zenbait lagun zituztela. Ondoren,

noski, beste dantza eta abesti batzuk etorri ziren.

Ikus-entzunezkoak ere proiektatu zituzten. Horieta batzuetan Txintxarri News-eko kazetari bilakatu ziren Bea Egizabal eta Cesar Marcos. Jaialdian egingo zutenaren gainean edo VIP izateak eguneroko bizitzan nola eragiten dien galdetu zieten, nola ez, umorez.

Argazkiekin osatutako bideoetan, berriz, urtean zehar aurrera eramandako jarduerak gainbegiratu zituen elkarteak eta *Pausoka pausoka* abestiarekin prestatutakoan, babesa adierazi ohi dieten hamaika eragile eta elkarteren ordezkariak pasatu ziren pantailatik.

Kantuan eta dantzan aritu ziren jarraian, abesti ezagunen sorta zabala pasata eta 10. Maratoialdiko zortzikoteko kide batzuekin ere astindu zuten gorputza. Aurrera eramandako ikuskizuna aitortzeko,

txalo zaparrada luze batekin agurtu zituzten herrikideek.

## Balorazio "oso ona"

Bi aste eskas igaro dira jaialdiaz geroztik, eta behin lur hartuta, balorazio txiki bat egin du Jalgune elkarteak. Nabarmendu du bertako kideek "primeran" pasa zutela eta "izugarri" gozatu.

Horrekin batera, azpimarratu du ikus-entzuleen erantzuna, eta jakinarazi, beste behin ere sarrera guztiak agortu zituztela. "Publikoaren motibazioa sekulakoa izan da, txalo asko jaso ditugu eta uste dugu, eurek ere ederki pasa dutela", gaineratu du. Ez ditu aipatu gabe utzi nahi izan emanaldian modu batera edo bestera parte hartu dutenak: "Hogei pertsona baino gehiago aritu dira gurekin, eta hori oso eskertzekoa da. Euren lana balioan jartzen dugu; ezinbestekoa da".



Semblante Andaluzeko dantzariekin ere dantza egin zuten Jalgune kideek. TXINTXARRI



Bea Egizabal eta Cesar Marcos ere agertu da proiektatutako bideoetan. TXINTXARRI



Askotariko dantza alai bezain koloretsuak eskaini zituzten oholtzara gainean. TXINTXARRI



Zortzikotea ere batu zen jaialdira; giro bikaina izan zen uneoro. TXINTXARRI



# Eguberriak ohi bezala ospatuko ditu Ttakun KEk

San Tomas azoka egingo du hilaren 21ean, asteazkenarekin, 17:00etatik 20:30era. Hiru egun geroago, Mari Domingi, Olentzero eta lagunei ongietorri beroa egingo die: eskutitzak jasoko dituzte goizean, eta kalejiran aterako arratsaldean, Okendo plazako ekitaldiaren aurretik

## Txintxarri

Heltzear diren Eguberriak ohiko formatuan ospatuko ditu Ttakun Kultur Elkartek, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, pandemiak eragindako moldaketak atzean utzita. Gauzak horrela, San Tomas azokarekin irekiko du egitarau berezi hori hilaren 21ean, asteazkenarekin. Eguraldiak laguntzen badu, Okendo plazan aurrera eramango dute festa, 17:00etatik 20:30era; euria eginez gero, berriz, Oriarte Landaberrin institutura eramango dute.

Taloak, txistorra, gaztainak, sagardoa... Ospakizun horretan ohikoak diren jaki eta edariak kontsumitu ahalko dituzte herritarrek. Ttakun KEk berak jarriko duen postuaz gain, herriko zenbait eragile eta talde ere animatu dira parte hartzera. San Tomas eguneko protagonista nagusietako bat, txerria, plazan bertan (eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberrin) jarriko dute ikusgai. Horrez



Mari Domingi, Olentzero eta lagunak kalejiran aterako dira hilaren 24an. TXINTXARRI

gain, kultur egitarau bat prestatu du euskara elkartek: Xumela korua eta Oaintxe in de txaranga koen emanaldi bateratua, bertsolariak, Plaza Dantza egitasmoko lagunak egingo duten dantzaldia eta

Ttiriki Ttarraka musika eskolako emanaldia. Antolatzaileek herritarrek animatu dituzte baserriar jantzi eta San Tomas azokara bertaratzen. Hilaren 21a hurbildu ahala emango dituzte

zehaztapen gehiago, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean zein hilaren 23ko Gabonetako zenbaki berezian jasoko ditugunak.

## Mari Domingi eta Olentzero

Hiru egun geroago jaitsiko dira herriko txikienen pertsonaia kuttunenak, hilaren 24an: Mari Domingi eta Olentzero. Herrian bertan izango dituzte zain hiru lagun maitagarri: Xixuko ahatea, Mari Teilatuko eta Porrotx pailazoa.

Goizean lan egin beharko dute Mari Domingi eta Olentzerok: haurren eskutitzak jasoko dituzte Antonio Mercero gunean, 12:00etatik 14:00etara. Ekitaldi horretara joan ahal izateko, herritarrek txartelak eskuratu behar dituzte Ttakun KEren bulegoan (Geltoki kalea 4, behe), hilaren 22an, ostegunarekin, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Gutunen jasoketa hasi aurretik, herriko ikastetxeetako haurrak kantuan ibiliko dira erdigunean barrena: 10:15ean hasiko dira, Isla plazan. Bukatutakoan, Landaberrin eta Sasoetako guraso elkarrekin prestatutako txokolate goxo eta beroa jango dute.

Mari Domingi, Olentzero eta lagunak kalejiran aterako dira arratsaldean, 18:00etan, Loidibarren pilotalekutik. Ordu erdi geroago Okendo plazara iritsi, eta ekitaldi koloretsu bat egingo dute.



Gototik gozatu dute. TXINTXARRI

## Taloak nola egin ikasi dute haurrek

Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatuta, arto irinezko taloak nola egin ikasi dute haur lasarteoriarrek. Ttakunenea elkartean batu dira, bi txandatan, eta lan horretan urte mordoa daramaten talogile esperientziadunen bitartez jaso dute irakaspena; ohitura zaharra galdu ez, eta jarraikortasuna izan dezan etorkizunean, belaunaldi berrien eskuetan.

## Bukatu da Maratoialdia

Euskararen 10. Maratoialdia ekitaldi xume batekin itxi dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek. Zortzikoteko kideek urriaren 22an hasi eta hilaren 2an amaitu zen 42 eguneko bidea errepasatu, eta kultur etxera joandakoak dantzan jarri zituzten. Maratoialdiko eduki guztiak, hemen: <https://txintxarri.eus/bereziak/euskararen-maratoialdia>.



# San Silvestre lasterketa goizez jokatu dute

Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketak berrikuntza nagusi bat du aurten, goizean jokatu da. Hilaren 31n, 12:30ean, emango zaio hasiera probari. Okendo plaza girotzeko haur eta helduei zuzendutako egitaraua osatu dute antolatzaileek

## Txintxarri

San Silvestre lasterketa bueltan da. Itxaronaldia amaitu da eta hilaren 31n berriz ere Lasarte-Oriako kaleak moztuz beteko dira. Aurten berrikuntza nagusia probaren ordutegia izango da; goizez jokatu da, 12:30ean. Lasterketa aurreko uneak girotzeko hainbat ekimen ere izango dira Okendo plazan.

Patinatzaile, korrikalari eta ipar martxa ibiltariek parte hartu ahalko dute urteko azken eguneko proban. Lehen bi modalitateek sei kilometroko ibilbideari aurre egingo diote; 4,3 kilometrotako bidea izango dute ipar martxa partaideek.

Lehen sailkatuek eta moztuz onenek saria jasoko dute. Baina ez dira bakarrak izango, antolatzaileek aurreratu dutenez, opariak ere zozketatuko baitira parte hartzaile guztien artean.

## Izen ematea, sarean

San Silvestrearen antolatzaileek sarean izen ematea ireki dute.



2019 urteko irudia. TXINTXARRI

Lasterketako webgunean edo Rock The Sport atarian hilaren 28ra arte egin ahalko da inskripzioa. Bide hau aukeratzin duten parte hartzaileek 7 euro ordainduko dituzte.

Hilaren 29an, 30an eta lasterketa egunean bertan ere Antonio Mercero gunean izena eman ahalko da. Alabaina, prezioa

igoko da; lehen bi egunetan, 10 euro eta 31n, bertan, 15 euro ordaindu beharko dira.

Hiru egun horietan ere, dortsalak banatuko dituzte. Guneko ordutegia honakoa izango da: hilaren 29an eta 30ean, 10:00-13:00 eta 16:00-19:00; 31n, 10:00-11:00.

## Giro ederra

Ez da lasterketa soila izango, ordea. Irteera eman baino lehen herritarrak jai giroan sartzeko hainbat ekitaldi izango dira Okendo plazan.

11:30ean, pintxo pote solidarioa egingo dute. Gerturatzin direnek edariak, salda eta txorizo egosia izango dituzte aukeran.

12:00etan, Porrotzek haurrei zuzendutako kanpaikadak emango ditu.

12:05ean, proba aurreko beroketa musikatua izango da, Saitoko kideen eskutik.

Lasterketa bitartean, Iñaki Urruzolak ipinitako musikaz gozatu ahalko da.



Jon Presa, lasterketako momentu batean. TXINDOKI ATLETISMO TALDEA

## Presa, bigarren Txindoki Krosean

Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarrak Txindoki Krosean parte hartu zuen hilaren 11n eta podiumeko bigarren mailara igo zen. Maila federatuko eta eskolarteko 300 bat korrikalari bildu ziren Ordiziako Oiangu parkean. Absolutu mailan, Daniel Martinez iruindarra buru izan zen proba erditik aurrera eta bakarrik iritsi zen helmugara (27.33). Jon Presa herritarra lehen hamar postuetan ibili zen lehian eta azken itzulian pixkanaka postuak irabazten joan zen. 27.46 denbora eginez, lasterketako bigarren izan zen.

## Atletak, markak ontzen

Ostadar Atletismo saileko federatu mailako kideak marka lortzeko probak lehiatzen hasi dira. Hilaren 11n, Donostiako Antonio Elortza belodromoan parte hartu zuten talde urdin-beltzeko hamalau bat kidek. Herriko kirolariak hainbat marka pertsonal ondu zituzten 60 metroko lasterketan eta pisu jaurtiketa proban. Abiadura proban, Alex Alkain (7,35), Unax Riezu (7,57), Oinatz Almagro (7,76) eta Dunix Muñoz (8,91) txukun ibili ziren. Pisua jaurtitzin, aldiz, Nora Manzanalek (8,11 m.) eta Aiala Ramosek (8,78 m.) euren markak hobetu zituzten.

Bestalde, hilaren 4an, eskolarteko topaketa izan zen Hemanin. Taldeko kirolari gutxik parte hartu arren, fin ibili ziren gaztetxoak. Eider Redondo infantilak 220 m. hesi proban egindako 32,6ko marka nabarmendu dute Ostadarreko prestatzaileek.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
<b>Intxaurdi KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Cesar Benito, Donostian.
<b>GORENGOEN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Universidad de Deusto FC</b> Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL 1. MAILA
<b>Texas Lasartearra CF - Urola KE B</b> Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.
<b>Intxurre KKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
<b>Kostkas KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.
JUBENIL 1. MAILA
<b>Ostadar SKT B - Kostkas KE C</b> Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
<b>Billabona KE B - Ostadar SKT C</b> Larunbata. 16:00. Arratzain, Villabonan.
<b>Usurbil FT A - Texas Lasartearra CF</b> Igandea. 11:45. Harane, Usurbilen.
OHOREZKO KADETE MAILA
<b>Ostadar SKT - Arrupe Chaminade CD</b> Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
KADETE 1. MAILA
<b>Ostadar SKT B - Texas Lasartearra CF</b> Igandea. 13:35. Michelin kirol gunean.

<b>Santo Tomas Lizeoa B - Ostadar SKT C</b> Larunbata. 14:00. Herrera, Donostian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA
<b>Ostadar SKT - Beasain SD</b> Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
INFANTIL TXIKI, 2. FASEA
<b>Ostadar SKT - Arrasate CD</b> Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA
<b>Ostadar SKT B - Beasain SD</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>Tolosa CF B - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 12:15. Usabal, Tolosan.
<b>Lazkao KE B - Ostadar SKT A</b> Igandea. 17:30. Arizti Handi, Lazkao.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
1. MAILA
<b>Eguzki Arkupe Rehab. - Egintza KE</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
2. MAILA
<b>Aldapeta Maria ik. A - Eguzki ISU Leihok</b> Larunbata. 18:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.
GAZTEEN MAILA
<b>Goierrri KE - Eguzki Bodegas Ayasa</b> Igandea. 11:00. Michelin kirol gunean.
INFANTIL MAILA
<b>Arizmendi Eskoriatza - Eguzki AF</b> Igandea. 11:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.


<b>SASKIBALOA</b>
SENIOR 1. MAILA
<b>Drunkat Hoops - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
SENIOR 3. MAILA
<b>Ostadar SKT - Andraitz KE</b> Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
<b>Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Iturripe kirol., Arrasaten.
JUNIOR PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - Zast 006</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
<b>Ostadar SKT - Saski Axular</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - Saski Axular Igeldo</b> Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
<b>Lana Ointxe! - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Ibarra kirol., Aretxabaletan.
INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA
<b>Ordizia Lacturale - Ostadar SKT Urdina</b> Igandea. 10:45. Majori kirol., Ordizian.
INFANTIL PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT Beltza - Ganbara Plastigaur</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

<b>PILOTA</b>
ESKUZ BINAKA, TRINKETA, JUBENILAK
<b>Hernani 2 - Intza 1</b> Larunbata. 10:30. (1. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>Intza 2 - Gazteleku</b> Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
<b>BOLEIBOLA</b>
EUSKAL MAILA, SENIOR
<b>Udapa Jatorkide jubenila - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Aranalde kirol., Gasteizen.
EUSKAL MAILA, 2. SENIOR
<b>Navarvoley - Ostadar SKT</b> Igandea. 11:30. Berriozarko kirol., Nafarroan.
KADETEA
<b>Harresi - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 10:00. Talaiia BHL, Hondarribian.
<b>Goierrri KE 1 - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 12:15. Aldiri kirol., Urretxun.
INFANTILA
<b>Ostadar SKT A - Hernani 1</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>Ostadar SKT B - Hernani 2</b> Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>ERRUGBIA</b>
18 URTEZ AZPIKOA
<b>Danon Artean Rugby Taldea - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE</b> Larunbata. 11:15. Mojategi, Arrasaten.

<b>16 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Arrasate RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE</b> Larunbata. 10:00. Mojategi, Arrasaten.
<b>IGERIKETA</b>
NEGUKO LIGA
<b>Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek ligako 4. jardunaldia dute.</b> Larunbata. 16:00. Hemaniko kiroldegian.
ALEBIN LIGA
<b>Buruntzaldea IKTKo alebin mailako igerilariek ligako 3. jardunaldian egingo dute igeri.</b> Larunbata. 16:00. Majori kirol. Ordizian.
AXA LIGA
<b>Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek Mareastur nazioarteko Openean parte hartuko du.</b> Igandea. 10:00. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.
<b>ATLETISMO</b>
PROBA LIBREA
<b>Ostadar Atletismo saileko zein herriko atletak proba librean dituzte.</b> Igandea. 10:00. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.
<b>SARI BANAKETA</b>
KIROLAREN GALA
<b>Lasarte-Oriako Kirolaren VII. Gala egingo dute.</b> Ostirala. 19:00. Manuel Lekuona Kultur etxean.

# XIXUKO, MARI DOMINGI ETA OLENTZERO BADATOZI!

Abenduak 24, Lasarte-Oria



10:15/ Herriko ikastetxeen Eguberrietako kalejira Isla plazatik  
11:45/ Txokolate jana eta postontziaren irekiera Okendo plazan  
12:00-14:00/ Xixuko, Mari Domingi eta Olentzerorekin gertu eta goxo  
Mertzero gunean (txartelak eskuratu beharko dira Ttakun KEren bulegoan  
(Geltoki kalea 4, behe), hilaren 22an, ostegunarekin,  
09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.  
18:00/ KALEJIRA Loidibarren frontoitik  
18:30/ EKITALDIA Okendo plazan


\*Eguraldi txarrarekin ekitaldia Oriarte Landaberrin izango da

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.  
Herri bat BERRIaren kulturaren plazan.



Izan BERRIAlagun **6 hilabetez 50 euroan**  
eta eraman BERRIaren agenda opari

Asteko  
ikuspegia



Bietako bat  
aukeran



Eguneko  
ikuspegia

[Berria.eus/berrialaguna](https://berria.eus/berrialaguna)

\* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

**berria** zuk badakizulako

# Munduko Txapelketarako gutxienekoa eskuan

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek SB7 mailako 100 m. bular proban Espainiako errekor berria ezarri du, Catalia Castello Nazioarteko Sarian. Marka horrek Manchester-en jokatu den Igeriketa egokituko Munduko Txapelketarako txartela ere eman dio

## Txintzarri

Buruntzaldea IKTKo kideek ez dute atsedunik izan azken asteburuetan. Hilaren hasieran Catalia Castello Nazioarteko Sarian zein Paco Sanchez sarian lehiatu ziren taldeko igerilariak eta bietan emaitza paregabeak lortu zituzten.

Hilaren 3an eta 4an, igeriketa taldeko Nahia Zudaire eta Garazi Etxeberria Gipuzkoako selekzioarekin Castello-ra, Valentziar Herrialdera joan ziren.

Zudairek 100 metroko hiru proba egin zituen lehiaketan eta hiruetan finalerako sailkatu zen. Bular estiloko lehiari lortu zuen emaitzarik onena; bai sailkapenean, baita finalean ere SB7ko Espainiako errekorra egin zuen Zubietako igerilariak. Eta 01.41,83ko markari esker, 2023an Manchester-en (Erresuma Batua) lehiatuko den Munduko txapelketan izango da.

Garazi Etxeberriari dagokionez, estilo libreko 50 m. eta 100 m.



Nahia Zudaire, Catalia Castello sarian lehiatzen. GIPUZKOAKO IGERIKETA FEDERAZIOA

saioei, 100 m. bular eta lau estiloko 200 metro probei egin zien aurre; estilo libre zein lau estiloetako lehietan B finalerako sailkapena lortu zuen. Eta guztietan lortu zuen markak ontzea: 50 m. libre, 28,03; 100 m. libre, 01.00,87; 200 m. lau estilo, 02.36,42 eta 100 m. bular, 01.23,93.

Bakarkako saio horiez gain, 4x100 m. erreleboko Gipuzkoako azken postuan ere izan zen igerian

eta lauokak bosgarren postua eskuratu zuen.

## Paco Sanchez saria

Horrez gain, urtea amaitzeko benjamin eta infantil sariketa batean parte hartu ohi du taldeak. Aurten, hilaren 3an, Tolosan jokatu zen Paco Sanchez sarian lehiatu ziren hamasei haur. Ederki aritu ziren guztiak eta igerilarietako batzuek domina jantzi zuten:



Infantil emakumezkoen podiuma. BURUNTZALDEA IKT

## Iraupen luzeko proben irabazleak

Distantzia Luzeko Euskal Herriko Txapelketa antolatutako Buruntzaldea IKTK hilaren 11n. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa zein Errioxako igerilariak bildu ziren bertan; igeriketa taldeko ordezkariak ez zen egon, ordea.

Infantil kategoriako gaztetxoek 2.000 metroko proba jokatu zuten; junior eta absolutu mailako lehiakideek, aldiz, 3.000 metroko saioa izan zuten.

Honakoak izan ziren garaileak: Infantil maila, DN Portugaleteko Xabier Ramos eta Amaya CDko Ariadna Malo; Junior 1. Kategoria, Getxo Igeriketa Bolue KEko Eneko Salina eta CN Mendiboko Maialen Castellano; Junior 2. maila, Gaizka Landa Getxo Igeriketa Bolue KEko partaidea; eta absolutuetan, Eibar Igerixan taldeko Asier Gomez izan zen lehena.

## Urrea

- Axel Fuertes, 50 m. tximeleta.
- Ibon Elola, 100 m. tximeleta.
- Iñaki Garcia, 100 m. bizkar eta 100 m. libre.
- Aitor Ormazabal, 200 m. lau estilo.
- Ibon Elola, 200 m. lau estilo.

## Zilarra

- Ohian Matute, 100 m. bular proba.

- Mario Amantegi, 200 m. lau estilo.

## Brontzea

- Liher Albizu, 100 m. libre.
- Ohian Matute, 200 m. lau estilo.

Horien artean, igeriketa taldeko prestatzaileek Iñaki Garcia 100 m. libreetan lortutako marka pertsonala nabarmendu dute; 13 urteko talde errekor berria ezarri du.

## Belartietia, Sagasti eta De la Serna sarituko ditu udalak

Aurtengo Kirol Gala egingo dute gaur, hilak 16, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean

## Txintzarri

Lasarte-Oriako kirolari egindako ekarpenetatik Aiora Belartietia arraunlariak, Asier Sagasti judokak eta Eulogio de la Serna korrikalari ohiak udalaren eta herriaren esker ona jasoko dute gaur, hilaren 16an, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko areto nagusian egingo duten Kirolaren VII. Galan.

Sari banaketarekin, Lasarte-Oriako Udalak urrian hasi zuen partaidetza prozesuari amaiera eman dio. Herritarren izendapenak aztertu ostean, kirol elkarteek zein kirol batzordekideek euren bozkek

eman eta 2022 urtean nabarmendu diren kirolariak aukeratu dituzte. Era honetara, gaurko ekitaldian, euren jardunarengatik saria jasoko dute aipatu Belartietiak eta Sagastik; De la Sernak, aldiz, kirol ibilbidearen saria.

Kirol gala ikusteko gonbidapenak behar direla jakitera eman dute kirol zerbitzuko arduradunek; egun hauetan, Manuel Lekuonan egon dira eskuragarri txartelak.

## Kirolariak

Aiora Belartietia (Lasarte-Oria, 2002) Donostia Arraun Lagunak



2021 urteko kirolaren galan sarituko izan ziren kirolariak. TXINTXARRI

eskifaiako kidea da. Iaz Euskotren Liga zein Kontxako bandera irabazi zituen herritarrek. Aurten ere biak eskuratzeko lehia bizia izan dute Oriorekin. Ligan hainbat bandera lortu dituzte, baita Euskadiko txapelketa ere.

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) judo saileko kide Asier Sagastik (Lasarte-Oria, 1992), senior mailako Euskadiko zein Espainiako txapelketetan parte hartu du azken hilabeteetan. Zilarrezko domina jantzi du

lehenean eta Espainiakoan, aldiz zazpigarren izan da.

Eulogio de la Serna (Altza, Donostia, 1933) hamaika Lasarte-Oria Bai! kros, Behobia-Donostia eta herri lasterketetan parte hartu zuen korrikalari modura.

## 2022 urteko saritukoak

### Emakumezko kirolaria

- Aiora Belartietia  
Donostia Arraun Kirolak.


### Gizonezko kirolaria

- Asier Sagasti  
LOKE Judo saila.

### Kirol-ibilbidea

- Eulogio de la Serna  
Lasterketa herrikoiak.

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Maite**  
Zorionak Maite!!  
Besarkada eta muxu  
handi bat Manolo eta  
zure semearen partetik!



**Maitane**  
Arrakasta da hainbeste  
espero den urtebetetze  
horretara iristea eta  
pertsone bera izaten  
jarraitzen duzula  
konturatzea. Zorionak!



**Aran**  
5 urte goxo  
Ospatzeko 5 goxoki  
ZORIONAK TTIKI!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

## Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra).
- Erabiltzaileekin sartu/  
Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa  
betez.
- Zorion agurra formularioan  
zehaztutako datan argitaratuko da  
webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
eus helbidera, eta idatzi:  
izen-abizenak, urtebetetze  
eguna, urteurrenaren data edo  
ezkontzaren data eta nahi duzun  
testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 16	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 17	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 18	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 19	GIL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 20	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 21	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 22	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo  
Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84  
KIROLDEGIA: 943-37 61 82  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:  
943-37 61 81  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79  
KIUB: 943-36 16 05  
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21  
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60  
DYA: 943-46 46 22  
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53  
UDALTZAINAK: 943-36 24 42  
ERTZAINZA: 943-53 88 40  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

	1			9	4		3	
		4						7
		6				5		
			7		2		6	8
9	2							
6	4						2	5
				9	4			
		9	4			2		
		5	8	2				



**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943-37 14 48 telefonora,  
bidali hauraren izen-abizenak  
eta jaiotze data

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora  
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## OHARRA

## Erketz EDTren Gabon eskerako entsegua

Erketz EDTk egin ohi zuen Gabonetako eskea berreskuratuko du hilaren 24ean. Arratsaldeko 15:30tan abiatuko dira Sasoeta auzoko Santxo Tabernatik eta herriko inguruko baserriak bisitatuko dituzte kantuan.

Hitzordua prestatzeko entsegua egingo du dantza taldeak hilaren 22an, 19:30ean, Oriamendi plazan duten lokalean, KZgune zaharra.

## Biyak Bat egoitzeko jaiotza

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du hilaren 21etik aurrera bere egoitzeko jaiotza ikusgai izango dela. Arratsaldeko 18:30ean Felix Garitano apaizak jaiotza bedeinkatuko du eta ostean, herritar guztiek bisitatu ahalko dute.

## Ostadar bazkide kanpaina

Ostadar SKTk abenduaren 22ra arte bazkide berriak egiteko kanpaina abian jarri du. Herriko kirola eta ekonomia sustatzen proiektuan parte hartzerako animatzen ditu herritarrek, bai bazkide gisa, baita boluntario gisa ere.

Horretarako [ostadar@ostadarskt.eus](mailto:ostadar@ostadarskt.eus) helbidera mezu bat bidali behar dute interesdunek. Hiru bazkidezta mota ditu elkarte urdin-beltzak adin txikikoeak 15 euro ordaindu behar dituzte eta 18 urtetik gorakoek, aldiz, 25 euro. Familiak ere kuota propioa dute: 50 euro.

Era berean, bazkide direnei euren laguntza bihotzez eskertzen die kirol elkarteak: "Kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko zuen babesa ezinbestekoa baita".

## LOTME bazkide kanpaina eta lizentziak

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko arduradunek iragarri dute martxan jarri dutela bazkide kanpaina: lagun berriak bilatzeaz gain, dagoeneko eragileko kide direnen partaidetza berrituko dute. "Aurreko urteetako tarifak mantendu ditugu, prezio herrikoiak. Anima zaitetzeko gugana etortzera!", adierazi dute.

LOTMEko zuzendaritzako kideek zehaztu dutenez, elkarte bazkide izateak "abantaila asko" ditu, batez ere klubak antolatutako ekimenetan parte hartzerakoan onurak izatearena. "Horrez gain, naturaren maitale den

talde bateko kide izan daitezke mendizaleak, kirol jarduera asko egin giro zoragarrian".

Bazkide izateko aukeraz aparte, LOTMEko arduradunek gogorarazi dute elkartearen bidez federa daitezkeela mendizaleak. "Lizentzia egiteak abantailak besterik ez ditu, eta istripuek eragindako kalte ugari saihesten laguntzen du".

## Beltzak RTren Beltzak RTko saskiko txartelak salgai daude

Beltzak RTk jakinarazten du, urtero legez, produktuz betetako Gabonetako otarra zozkatuko duela. Sari ugari batu ditu Beltzak RTk aurten ere Eguberritako sarian, besteak beste, arrain eta haragi sorta bana, 1 kg. angula, ardo sorta bat, fisioterapia sesioak edo hainbat jatetxe edo tabernatan afariak.

Txartelak ohiko tabernatan daude eskuragarri. Abenduaren 21eko ONCEko azken lau zenbakiekin bat datorren txartela izango da irabazlea. Batzen den dirua Errugbi eskolara bideratuko du Beltzak RTk.

## AZOKA TXIKIA

## LANA

## ESKAINZA

Esperientzia duen sukaldaria behar da; arratsaldeko lanaldia. Harremanetarako zenbakia, 660 98 11 32.

Batxilergoko 1. mailako Ekonomia eta Matematika ikasgaietan laguntzeko pertsona baten bila gabe, ikasleei eskola partikularrak emateko. Harremanetarako zenbakia, 609 47 31 11.

Bi umei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH3 kurtsuan dago eta bestea DBH3.n. Utzi mezua whatsappen zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... Whatsapp zenbakia: 688 74 09 31. 15 urteko neska bati euskarra klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsalde deitu).

## ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsuan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79. Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere.

Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10. Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

## SALEROSKETA

## SALDU

Su egurra saltzen da (haritz), tximinirako,

ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

## BESTELAKOAK

## HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsalde. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

## TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646 82 44 66

## ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48**

## ESKUTITZA

## A15: Zergatik mobilizatzen gara?

## IKAMA IKASLE ANTOLAKUNDEA

Aurtengo ikasturtea aldatetena izango zelakoan hasi genuen ikasturtea ikasleok, baina, beste behin, ez dugu aldatetarik nabaritu. Ikastetxeetako segregazioak bere horretan jarraitzen du, ikasleok beharrek erdigunean egon gabe jarraitzen dute eta pedagogia erdua ere ez dago ikasleriari egokituta. Ikastetxeak ez dira espazio segururak emakumeentzat\* eta euskarak ez du tokirik hainbat eta hainbat institutuetan. Azken batean, hezkuntzak gure neurriera egon gabe jarraitzen du.

Hezkuntza ereduak sistema kapitalista zisheteropatriarkal arrazista birproduzitzen duela argi dugu IKAMAKo kideok. Ikasleok objektu izaten jarraitzen dugu, subjektu izan beharrean; gure motibazio eza, jasaten dugun presioa eta gure egoera psikosoziala adibide direlarik. Balore individualista eta lehiakorretan hezten gaituzue oraindik, eta horrek ez digu balio.

Horregatik, ikasleok beste eredu bat nahi eta behar dugu, eraldaketarako tresna izango dena eta gure beharrak asetuko dituena. 4 gako beharrezko ikusten ditugu IKAMAtik eredu berri bat eraikitzeko: hezkuntza ekologista, feminista, euskalduna eta inklusiboa.

Eredu berria ekologista izan beharko da, bizitza bizigarriak irudikatuko dituena, ikasle eta irakasleen kontzientziak piztuko dituena eta hezkuntza bera sostengarria egingo duena. Gaurko jendarte kapitalistaren aurrean begirada askatzaile bati bide eman behar dio hezkuntzak, balore individualistatik at. Funtsean, oraindik eraiki ez diren bizi ereduez hausnartzeko espazio segurua izan behar du hezkuntzak, eta ez gainezka egin duen bizi eredu hau birproduzitzeko.

Kapitalismoaz jardun dugu, baina ezin ditugu kapitalismoa eta patriarkatua elkarrengandik bereiziak ulertu. Beraz, hezkuntza feminista baten alde egiten dugu, gizartean inposatzen diren genero eta sexu rolak ez birproduzitzeko. Honekin bat, neskongan\* jartzen diren zaintzalanen eta ardura emozionalen errekonozimendu bat eskatzen dugu. Gainera, adimen emozionalak ez du lekurik gure curriculumean, gure buruak

ezagutu eta lantzea ezinezkoa da horrela. Hau esanik, genero zein sexu disidentziak errealitate diren espazio izan behar dute gure ikastetxeek; denontzat espazio segururak izan behar dute.

Aurreko guztia ezin irudika dezakegu, hezkuntza euskalduna ez bada. Ezin dugu ahaztu nazio zapaldu batean bizi garela, eta ondorioz, gure hizkuntza, historia eta kultura ere zapaltzen direla. Ikasleok gure hizkuntzan ikasi nahi dugu, gure historia ikasi nahi dugu eta gure kulturatik ikasi nahi dugu. Eta ez digu balio hau ez bada Euskal Herri osoan izaten. Euskal Herri osoko ikasle orok izan behar luke aukera berdina euskaraz ikasteko, gaur egun gertatzen ez den bezala.

Azkenik, hezkuntza inklusiboaren alde egiten dugu, bereizketak sistematikoki batean bizi garen honetan, erroko aldatetako bat nahi dugulako. Ikasle guztiontzat diseinatutako hezkuntza bat nahi dugu. Arraza, erlijio, sexu, klase sozial, eta beste hainbat ezaugarri direla medio, ikasle bakoitzaren ikasketa prozesua baldintzatuko ez duena.

Beraz, ikasleok zer? Agintarien utzikeria ez dugu guk ordainduko, ezta eredu zaharkitu hau ere; erroko aldatetako behar ditugu. Ikasleok eta zaintza erdigunean dauden hezkuntza behar dugu, segregazio ororekin amaitzeko neurri eraginkorrak behar ditugu. Denok euskaraz ikasteko aukera izan dezagun, Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna eskatzen dugu, eta ikasleok euskaldunetza helburu duen eredu bat behar dugu. Ikasketa prozesuaren doakotasuna bermatzea nahi dugu, ikasleok aukera berdintasuna izan dezagun, eta ikasleok baldintzei egokitutako plan erreal eta malguak behar ditugu.

Guzti hau esan ostean, IKAMAtik argi dugu, hezkuntza, sistema birproduzitzeko dagoen tresna indartsuena dela. Hau horrela, jendartearen eraldaketa erreala bultzatuko duten aldateten bidean ozen diogu hezkuntza sistema honek ez digula balio! Egungo molde zurrunean at dagoen sistema bat behar dugu; gure neurriera egokituko dena, ikasleok zaindu eta erdigunean kokatuko gaituena. Sistema honen kateak suntsitu eta bizi eredu bizigarriak erakutsiko dituen pedagogia behar dugu. Finean, herriarentzako eta ikasleontzako eredu bat.

txintxarri

www.txintxarri.eus

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Endika Merchan, Gorka Morales,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 16

### LASARTE-ORIA Enkantea

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak enkante kolektiboa egingo du, herriko zenbait sortzaile eta bizilagunek emandako produktu ugariarekin. Horren ostean, kontzertua emango du Eñaut Zubizarreta *Trigger* musikariak. Tiburtzio Artizar taberna, 18:30etik aurrera.

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak zineforuma egingo du, *Mi país imaginario* filma proiektatuta. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 22:00etan.

## LARUNBATA 17

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Zuhaitzak landatzen zituen gizona antzezlanaren emanaldia egingo du Gorakada Teatroa konpainiak. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Siglo20 tabernak 26 urte bete dituela ospatuko du. Egitaraua, hau: jateko eta edatekoa doan agortu arte, ikus-entzunezko bat JL Vision sortzailearen eskutik, eta musika zuzenean Paolo Solo, Horn, Txess eta Eneko Nanclares DJen eskutik. Siglo20 taberna, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Eguberrietako kontzertua emango du Alboka Abesbatzak, Donostiatik etorritako Luberrri Abesbatzarekin batera. Sarrera, doan. San Pedro eliza, 20:00etan.

## IGANDEA 18

### LASARTE-ORIA Zinema

*La gran aventura suiza* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Mira cómo corren* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.



**LASARTE-ORIA Kontzertua.** Gabonak ate joka ditugun honetan, egun berezi horiek giroten lagunduko du Alboka Abesbatzak, izan ere, Eguberrietako kontzertua emango du, Donostiako Luberrri Abesbatzarekin batera. Euskal abesti tradizionalak eta nazioarteko doinuak uztartuko dituzte. Sarrera, doan. San Pedro eliza, hilak 17 (larunbata), 20:00etan.

## ASTEAZKENA 21

### LASARTE-ORIA Haur parkea

Eguberrietako Haur Parkea irekiko du Lasarte-Oriako Udalak. Hilaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean (egun hori izango da azkena) goizez zabalduko du soilik, eta itxita egongo da hilaren 25ean nahiz urtarrilaren 1ean. Helduek euro bat ordaindu beharko dute sartzeko. Michelin pilotalekua, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

### LASARTE-ORIA Azoka

San Tomas azoka antolatuko dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberrri institutura joango dira. Okendo plaza, 17:00-20:30.

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua emango dute. Sarrera, doan. Kultur etxea, 19:00etan.

## LARUNBATA 24

### LASARTE-ORIA Eguberriak

Mari Domingi, Olentzero eta lagunak Lasarte-Oriara etorriko dira, urtero bezala, zorientasuna

eta opariak banatzera. Harrera berezia prestatu die Ttakun Kultur Elkarteak:

**10:15ean**, ikastetxeko haurren kantu jira saioa, Isla plazatik.

**12:00etatik 14:00etara**, eskutitzak jasoko dituzte Mari Domingi eta Olentzerok, Antonio Mercero aretoan.

**18:00etan**, kalejiran abiatuko dira Mari Domingi, Olentzero eta lagunak, Loidibarren pilotalekutik.

**18:30ean**, kalejira Okendo plazara iritsiko da. Ongietorria ixteko, ekitaldi bat egingo dute oholtzan.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

## OSTEGUNA 29

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Gospel musika estiloan oinarritutako kontzertua emango du Sand & The Soulshine Voices taldeak. Sarrerek 14 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

## OSTIRALA 30

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren zineforuma egingo du: *Todo el mundo odia a Johan* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 22:00etan.

## ZINEMA

ANDOAIN	LASARTE-ORIA		Larunbata 17
BASTERO	MANUEL LEKUONA	21:30, 23:00.	15:45, 18:00, 20:15.
'Strange world'	'Mi país imaginario'	Larunbata 17 12:00, 12:20, 12:30 (3D), 15:00, 16:00, 16:30, 17:00 (3D), 19:00, 20:00, 20:30 (3D), 21:00 (3D), 21:15, 21:30, 23:00.	Igandea 18 15:45, 18:00, 20:15.
Larunbata 17 17:00.	Ostirala 16 22:00.		'El cuarto pasajero'
Igandea 18 17:00.	'La gran aventura suiza'	Igandea 18 21:15, 21:30, 23:00.	Ostirala 16 15:30, 22:30.
'Armageddon time'	Igandea 18 17:00.		Larunbata 17 15:30, 22:30.
Larunbata 17 19:30, 22:00.	'Mira cómo corren'	Igandea 18 15:00, 16:00, 16:30, 17:00 (3D), 19:00, 20:00, 20:30, 21:00 (3D), 21:15, 21:30.	Igandea 18 15:30, 22:30.
Igandea 18 19:30, 22:00.	Igandea 18 19:00.		'Mundo extraño'
			Ostirala 16 16:10, 18:45.
HERNANI	USURBIL		Larunbata 17 16:10, 18:45.
BITERI	URBIL		Igandea 18 16:10, 18:45, 12:20.
'En los márgenes'	'Avatar 2: el sentido del agua'	Ostirala 16 15:00, 16:00, 16:30, 17:15, 19:00, 20:00, 20:30, 21:15,	
Ostirala 16 22:30.	Ostirala 16 15:00, 16:00, 16:30, 17:15, 19:00, 20:00, 20:30, 21:15,		
'Rabbit school'	Larunbata 17 eta Igandea 18 16:30.		



LABURPENA

### 'Mi país imaginario'

**Zuzendaria:** Patricio Guzman. **Gidoia:** Patricio Guzman. **Argazkia:** Samuel Lahu.  **Ekoizleak:** France Cinema, Atacama Productions, Market Chile. **Herrialdea:** Txile (2022). **Iraupena:** 83 minutu. **Generoa:** Dokumentala. **Musika:** Jose Miguel Miranda, Jose Miguel Tobar.

## Eztanda baten kontakizuna

Txileko hiriburu Santiagoko kaleek eztanda egin zuten 2019an, orduko gobernuaren aurka. Milaka eta milaka herritar karriketara atera ziren demokrazia eta berdintasuna eskatzera, hainbat alorretan: hezkuntza, osasuna, lan baldintza eta aukerak... Hiru urte geroago, Patricio Guzman zinemagileak orduko horretan protagonista izan ziren hainbat txiletar elkarrizketatu eta hain lekukotzekin dokumental bat

ondu du. Herrialde ugariaren aretotan proiektatu ondoren, Okendo Zinema Taldeak (OZT) gure herrira ekarriko du.

Hori ez da izango OZT hilabete honetan egingo duen emanaldi bakarra, izan ere, hilaren 30ean (ostirala) *Todo el mundo odia a Johan* pelikula proiektatuko du, 22:00etan kultur etxean. Jatorrizko bertsioa izango da, azpidatziekin. Sarrerek 6 euro balio dute.



Talo, gaztaina eta herriko taldeen postuak  
Sagardo dastaketa  
Txerria ikusgai

**SAN TOMAS AZOKA**

Abenduaren 21ean, OKENDO plazan  
17:00etatik 20:30era

**Tta kun**  
Kultur Ekartea

**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO

\*Eguraldi txarrarekin ekitaldia ORIARTE BHI (LANDABERRI eraikinean) izango da

sentitu  prestatu... eta ekin! 

  
EUSKARAREN  
MARATOIALDIA

mila esker  
**Lasarte-Oria**  
euskarak 365 egun!

**Tta kun**  
Kultur Ekartea

**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO